

Erne bigarren eskuko maukekin!

Bigarren eskuko autoa erostean beharrezko paperak eta datu guztiak eskatu behar dira


Bigarren eskuko autoen salmentak indar handia hartu du azken urteotan Euskal Herrian. Gero eta jende gehiagok erosten du bi, hiru, lau... gidarik erabilitako autoa, berria erostea ez baitago jende askoren esku. Saltzaileek sekulako maukak eskaintzen dizkiote erosleari eta ondoren itsutu eta nahasi egiten dute autoen distirarekin eta beren hitz-jarioarekin.

EUSKAL HERRIAN oraindik ez gara iritsi EEBBetako filmeetan azaltzen diren zirko itxurako bigarren eskuko saltokien neurri eta ikusgarritasunera, baina bigarren eskuko autoen salmentak indar handia hartu du. Bigarren eskuko autoen merkatuak poltsikora egokitutako autoak eskaintzen dizkio erosleari, eta, benetako maukak eskuratu arren, erosleak ez du ahaztu behar autoaren benetako datuak eta beharrezko paperak eskatzea.

Bigarren eskuko autoa erostean komenigarria da saltzailea edo denda behintzat ezagutzea, nahiz eta horrek ez duen bermatzen erosketaren zuzena egiten denik edo eroslearekin zintzo jokatzeko dutenik. Erne ibili behar da saltzaile fantasmekin, erreklamazioak egiteko arazo ugari sor baitaitezke eta azkenean erosleak ordaindu behar izaten baitu gastu guztia.

Dena den, lagunei erosten zaizkien autoekin ere adi ibili behar da, konfiantzaren ondorioz erosleak ahaztu egin baitezake beharrezko datu eta paper guztiak eskatzea.

Erosi aurretik autoaren datu guztiak ezagutu behar dira, zer erosten den argi eta garbi jakiteko. Amparo Lopez Real Automovil Club-eko (RAC) abokatua- ren iritziz, salmenta denda baten bitartez egiten bada, «saltzaileek ez dute ematen aurreko jabearen kilometro kopurua eta askotan aldatu egiten dute». Beraz, ez da fidatu behar bigarren eskuko autoek adierazten duten kilometro kopuruaz, eta autoaren egoeraz jabetzeko egokiagoa da pie-



Bigarren eskuko autoa erosteko orduan zehatz-mehatz aztertu behar da erosi nahi den autoaren egoera, erosi ostean sorpresarik ez izateko.

zak eta motorea nola dauden begiratzea eta ikustea.

Saltzaileari eskatu egin behar zaio autoan jartzen duen kilometro kopurua egiazkoa dela baieztatzen duen agiria. Horretaz gain, baita egiturako kolpe handirik jaso ez duelako eta libilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) pasatu duelako ere.

Ez fidatu itxuraz • Sarritan bigarren eskuko autoek oso itxura ona izaten dute, margotu eta garbitu berriak eta argizaria emanda egoten baitira, baina kanpoko itxura onak autoaren benetako egoera kaskarra ezkuta dezake.

Bigarren eskuko autoa denda batean erosiz gero, faktura eska-

tu behar da eta fakturan ahalik eta datu gehien zehaztu, saltzailearenak batez ere, autoa erosi ostean erreklamatu ahal izateko. Balio Erantsiaren gainerako Zerga (BEZ) zehaztu behar da, saltzaileak sinatu egin behar du eta dendaren zigitua jarri behar dio.

Garantiari dagokionez, Amparo Lopezek azaldu zigunez, «garantia ez da beharrezkoa, baina garantiarik gabe ezin da ezer egin. Garantiarik eskaintzen ez bada seinale txarra da. Normalean sei hilabeteko edo urtebeteko garantzia eskaintzea da, baina garantiaren iraupena baino askoz ere garrantzitsuagoa da garantzia mota, hau da, garantiak zer babesten duen. Guztia argi eta garbi zehaztu behar da paperean».

Kasurik gehienetan eroslea ez da autoetan aditua izaten eta ez da gai autoaren zenbait akatsez jabetzeko. Horregatik komeni da, lagun mekanikoren bat izanez gero behintzat, berarekin joatea autoa erostera eta probatzera, nola dabilen ikusteko eta akatsez ohartarazteko.

Dendako saltzaileak Transmisio Patrimonialen Zerga eskatuz

gero, ez egin kasurik, Transmisio Patrimonialen Zerga partikularren artean egiten den salerosketetan bakarrik ordaindu behar izaten baita. Izan ere, dendetako zenbait saltzailek eroslea eta benetako saltzailearen arteko bitartekari lana baino ez dute egiten eta haien izena edo zigitua ez da inongo dokumentutan azaltzen. X

ACITAIN, S.A. *gasolindegia*

- ★ MICHELIN zerbitzua
- ★ Marka nagusietako OLIOAK
- ★ Akzesorioak
- ★ Garbiketa automatikoa eta presioarekin
- ★ Gasolioen zuzeneko banaketa

AVIA

Barrena kalea, 19
Tf.: 12 16 62
Faxa: 12 18 62
EIBAR

SEKULAKO AUKERA

BALENO 5A.
1.800.000 pta.



BALENO 3A.
1.660.000 pta.

TURISMOAK: SUZUKI BALENO 3 ETA 5 A., 100 HP., **BESTE INORK BAINO LEHENAGO ERABAKI!!**
Ekipo Elektrikoa eta Lagunduriko Direktzioa
IRRATI-KASETA ETA MATRIKULAZIOA

OSO FINANTZAKETA BEREZIA:
5 URTE, SANTANA CREDIT-EKIN

KOPURU MUGATUA

SWIFT 1.3 GL
1.355.000 pta.



ALTO
1.050.000 pta.



SUZUKI IROVISA Industrialdea, z/g Anoeta-Tolosa © 65 18 42
Ramon M^a Lili Donostia © 29 02 25